



Emakumearen Egunaren harira hamaika ekitaldi, berdintasuna aldarri

TOLOSALDEA-LEITZALDEA ▶ Esparru ezberdinetako emakumeek egungo egoera aztertu dute ▶ 4-5



Anoetan, Ainhoa Iturbe irurarrak emandako Gure gorputzarekin bat egiteko espazioa. N. URBIZU



Musika klasikoa gazteen artean zabaltzeko busa

TOLOSALDEA ▶ Euskadiko Orkestrak bere 25. urteurrenean 'Tempo di martxa' autobusak Euskal Herria zeharkatuko du ▶ 2

ZIZURKIL ▶

Zirkulazioa zuzentzeko semaforoa jarriko dute Bulandegi bidean

Udalaren esanetan, «ibilgailuak
abiadura handian igarotzen dira» ▶ 6

AMEZKETA ▶

Kultur Aste oparoa antolatu dute

Gaur ekingo diote
hitzaldiarekin ▶ 6

MIKEL ALONSO ▶ REALEKO JOKALARIA

«Oso normala ikusten dut Realeko zaleek gugan ez sinestea»

Tolosarra berriro ere berdegunera
atera da bere lesioaren ondoren ▶ 3

KULTURA ▶



Internet bidez eta instrumentuekin orkestrarren zatiak ikasten.e.e.

Musika klasikoaren autobusa

Eskadiko Orkestraren 25. urteurrena dela-eta proiektu berri bat gauzatu dute

ESTI EZEIZA

Euskadiko Orkestra Sinfonikoak 25 urte betetzen ditu aurten. Hori dela eta, *Tempo di martxa* izena duen egitasmo berri bat jarri du martxan. Proiektu berri honekin, Euskal Herriko herrietan orkestraren izaera zabaltzea dute helburu. Hau ahalbidetzeko, autobus bat prestatu dute eta honek, sei hilabetez lurraldea igaroko du. Non hezkuntzako zentruetara

gerturatuz, EOSa haur eta nerabeei ezagutarazteko ekin-tzak egiten dituzten. Astelehenera ostiralera, eskola orduetan izaten dira eskoletan. Bestalde, asteburuetan musika eskoletan eta herriko plazetan kokatzen dute autobusa, honela, adin ezberdinetako jendeak har dezake parte saioetan. Orain arte 7.000 haurrek bisitatu dute autobusa, eta ekaina bitartean, beste 13.000 igarotzea espero dute.

Atzo Tolosako Samaniego ikastetxea eta Berastegiko herri eskola bisitatu zituzten. Datoren asteen berriz, Laskorainen izango dira.

Egitasmo hau Euskadiko Orkestra Sinfonikoa ikuspuntu hezitzaile batetik haurrei urretzeko dago pentsatua. Hala, 10 eta 12 urte bitarteko gazte-txoei zuzenduta daude orokorrean saioak.

Tempo di martxa-ko autobusa, ikasleak musika sinfonikoaren soinuen unibertsoa ezagutu dezan musika gela bat bilakatu dute.

Euskal Herriko Orkertra 110 musikaririk osatzen dute gaur egun. Hala ere, denek ez dute batera jotzen, hau da, kontzertuetan batzuetan kide batzuk izaten dira, eta besteetan beste batzuk. 25 urteko ibilbide honetan 1.700 kontzertu eskaini dituzte, Euskal Herrian nahiz gerturrian. 7.000 bazkidek gora ditu orkestrak eta 33 disko kaleratu ditu orain arte. egun 34. prestatzen ari delarik.

OIHAN VEGA ▶ 'TEMPO DI MARTXA' PROIEKTUKO ARDURADUNA

«Umeak uste baino hobeto ari dira erantzuten»

Oihan Vega (Bergara, 1981) musikaria izanteaz gain irakasle ere bada, eta Euskadiko Orkestraren *Tempo di martxa* ekimenean dihardu, musika klasikoa haurrei gerturatzeko. **Zer moduzko harrera izan du orain arte proiektuak?** Oraingo oso ona. Oso sorpresa baikorra eraman dugu. Umeak uste baino hobeto ari baitira erantzuten. Askotan pentsatzen dugu aspertuko direla. Gizartean zabaldua dago, musika klasikoa aspergarria, zaharrentzako eta *frikientzako* dela. Baina umei uste baino

gehiago gustatzen zaie musika mota hau.

Zer da zehazki autobus honetan egiten duzuen?

Bi zatitan banatzen dugu saioa. Azken batean ekimen didaktiko bat da eta umei musika klasikoa, orkestra eta Euskadiko Orkestra zer diren erakutsi nahi diegu. Batetik klase teorikoa ematen diegu; bestetik instrumentuekin eta jokuen bitartez ikasten dute.

Eguno haurrek musika instrumentuak jotzen al dituzte? Orokorrean bai, autobusera igotzen diren %25ak zehazki



E. EZEIZA

jotzen du. Hauek gainera implikazio handiagoa izaten dute.

Oso sakrifkatua al da orkestrako musiko baten bizitza?

Orkestran sartzeko lan handia egin beharra dago. Euskal Herriko nahiz Espainiar estatuko orkestra garrantzitsuen da, eta Europa mailan ere izen handia du. Bertan sartzeko frogak oso gogorrak dira.

Euskal Herriko musikariek gain, kanpoko asko daude.

Helburuetako bat Euskal Herriko musikariek bultzatzea bada ere, kalitateko Orkestra handi bat ere osatu nahi da, horregatik, munduan, egun dauden musikaririk onenak lotzen saiatzen gara. ◀

iragarki laburrak ▶

LANA

Zaintzailea. Asteasun emakumea behar da pertsona heldua zaintzeko. Telefona: 616 95 57 95.

Tabernaria. Neska euskaduna behar da tabernarako. Astelehenetik ostiralera, 15:30etik 22:30era, larunbat goizetan lana eta igandek jai. Deitu 650 48 79 34ra.

Sukaldaria eta zerbitzaria. Asteburuetarako sukaldaria eta zerbitzaria behar dira. Interesatuak deitu 615 78 90 06ra.

Garbitzailea. Garbiketa, sukalde,

jangela eta eskoletarako. Telefono zenbakia: 943 44 48 66.

Gidaria. Erakunde publikoetarako gidariak behar dira. Interesatuak deitu 943 44 48 66ra.

SALGAI

Furgoneta. Volkswagen Transporterra salgai. Kontakturako telefonoak: 943 65 57 00 eta 685 73 68 81.

Autoa. Renault Express-a salgai. SS-AV. ITV-a pasata. Telefono zenbakia: 620 03 67 49.

ZUZENKETA ▶

Atzo TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO HITZAN argitaratutako artikulu batean akats bat zegoen. Gorren inguruko hitzaldia ez zen atzo izan, bihar izango baita. Hau, Tolosako Kultur Etxean izango da, 19:00etan.

TXOTX

Arratzain

Arratzain zahar baserria info@agroturismoarratzain.com
Tel.: 943 366 663 Usurbil

Oialume Zar

Mikel Arozamena bidea, 16 (autobus geltokitik gertu)
Tel.: 943 552 938 - 943 332 127 Astigarraga

Gartziategi

Gartziategi baserria
Tel.: 943 469 674 Astigarraga

Iparragirre

Osiñaga auzoa
Tel.: 943 550 328 Hernani

Urbitate

Ergoiena auzoa
Tel.: 943 180 119 Ataun

Gurutzeza

Oialume bidea, 63 (sarrera Ergobia auzotik)
Tel.: 943 552 242 Astigarraga

Akelenea

Oialume bidea 57
Tel.: 943 333 333 Astigarraga

Lizeaga

Gartziategi baserria, Martutene pas. 139
Tel.: 943 468 290 Astigarraga

Elutxeta

Ozتان auzoa 34, Elutxeta baserria
Tel.: 943 556 981 - 943 333 337 Urnieta

Rezola

Santio Zeharra
Tel.: 943 552 720 - 608 143 332 Astigarraga

Larre Gain

Larre-Gain baserria, Ereñozu auzoa
Tel.: 943 555 846 - 616 287 867 Hernani

MIKEL ALONSO ▶ REALEKO JOKALARIA

«Normala da zaleek gugan ez sinestea»

Deportivoren aurkakoan jokatu ahal izan zuen erdilariak; taldea batuta egotea gutxieneko betebeharra dela dio

XABIER LOPETEGI (Berria)

Realean finkatzen hasi zenetik presioa ez da gauza arrotza izan Mikel Alonsorentzat (Tolosa, 1980). Mezu ezkorren gaindositia eta egoera zailak bizitzera ohitu da, baina ez du ahazten pribilegiatua dela. «Denboraldi honetakoa oso larria da, baina ez kasualitatea, ez delako sufritzen gabiltzan lehen aldia. Gauzak desberdin eramaten dituzu denborarekin. Lanbidearen zati bat da. Azken finean, maite dut futbollean jokatzeko eta Real defen-ditzea. Askotan ezinezkoa da deskonektatzea, baina ez da ezer ez gertatzen». Anaia bat Liverpoolen, bestea epaile eta aita jokalaria ohia izanda, aitortzen du etxean futbolaz asko hitz egiten dela: «Saihestezina da, gogorik izan ez arren».

Luzaroan min hartuta egon ondoren, zelaletara itzuli zinen Deportivoren aurkako partidaren. Pozik?

Bai. Taldekideekin batera lan egiten sasoi bat eman ondoren jokatu ahal izatea poztekoa da, kakotxen artean, egoera per-

tsionalak bigarren mailan gertatzen direlako eta taldeari gertatzen zaiona delako inportantea. Sasoi zaila izaten ari da, denbora asko daramat arazo hauekin. Orain hobeto nago, ez guztiz osatuta, baina parte hartzeko moduan behintzat, duela hilabete batzuk ez bezala.

Nolako lesioa izan duzu zehazki?

Belauneko artikulazioa minduta neukan. Pasa den denboraldian hasi zitzaidan oinazea eta [Migel Angel] Lotina iristerako zailtasun handiak neuzkan eta egoera jasanezina zen. Jokatzeko moduan ez nengoela esan nion, argi eta garbi. Denbora asko eman dut geldirik, askotan hobekuntzarik nabaritu gabe. Orain bai nabaritu dut, eta entrenatzean ondo sentitu naiz. Hala ere, lesioa ez zait bost egunean guztiz osatu-ko.

Urduri jarri zinen?

Noski. Pentsatzen duzu pasatuko dela, baina gero ez diozu buelta ematen, hau eta beste probatzen duzu entrenatzeari eta jokatzeari utzi gabe, okerrera egiten duzu... Dinamika horri taldearen ibilbidea gehitzen badiozu, egonezina eta urduritasuna handiak dira. Azkenean, gelditu behar duzu.

Ingalaterran egon zinen, Liverpoolerako fisioterapeutaren eskuetan...

Anaiarekin askotan hitz egiten dut eta berak proposatu zidan, fisioterapeutarekin kontsultatuta. Antzeko arazoa izandako taldekide bat zuten, eta denbora gutxian hoberantz egin nezakeela esan zidaten. Ez zitzaidan aukera txarra iruditu eta klubaren oniritzia jaso nuen. Egia esateko, han egindako gauzak ondo etorri zaizkit.

Partida osoa jokatzeko moduan al zaude?

Horretarako ari naiz entrenatzen. Oinazeak daukazunean norberak jartzen du muga. Une batean ez nuen neure burua gai ikusten, baina orain bai. Erritmo falta nabaritu nuke, baina joan den larunbatean jokatu banuen, prest nengoelako jokatu nuen.



HITZA

Zer moduz sentitu zinen zelaian?

Ondo. Haiek bere arean oso sartuta zeuden eta behera jaisiren ahalegindu nintzen, Kovacevici baloi luzeak bidaltzeko, ordurako joko lotua egitea zaila zelako.

Nola ikusi duzu taldea kanpoetik?

Denetarik egon da. Azken bolaran partida hobeak izan dira, baina beste une batzuetan ez dut batere ondo ikusi, alor askotan. Bestela, ez genuke daukagun puntu eta garaipen kopurua izango.

Taldeak hobeto defenditzen duela uste al duzu?

Beharbada sendoago jokatzen dugu, baina gero partida bat kanpoan jokatu eta kornerrean sartzen digute gola, edo geldikako jokaldi batean, duela bi asteko neurketan bezala... Gol aukera gutxiago sortzen dizkigute, baina gero gola sartzen digute, eta guk, aldiz, ez dugu asmatzen. Bi gauzak orekatzea izango da kontua. Datuak hor daude.

Gol falta, hala ere, kezkarria da. Zer deritoxozu honi buruz?

Arazo handia da guretzat. Azken partidetan, behintzat, gertuago izan dugu, argiago iritsi gara. Lehen, hori ere ez. Horrela jarraituta azkenean golak sartuko ditugula uste dut, azken partidaren tankerako gol aukera garbiak ez dituzulako beti huts egingo.

Konfiantza faltak zenbat eragiten du horrelakoetan?

Eragiten du. Zalantzak sortzen dira, aldaketa asko egiten dira, dena jartzen da ezbaian... Partidak irabazten ez direnean askoz zailagoa da sentazio positiboei heltzea eta horrek jokalaria irasaten dio, baina ezinbestekoa da horrelakoekin bizitzen ikastea, bizitzan bezala. Ez dugu amore eman nahi, barkaezina izango litzateke. Aukerak eduki badauzkagu oraindik.

Askok, ordea, fedea galdu dute...

Behar kigu. Inork ez du gugan sinesten eta normala iruditzen zait. Giroan ziurtat ematen da jaisiko gara eta ez gara hasiko esaten diren gauza guztiak ukatzen edo gure diskurtsoarekin konbentzitzen, baina aukerak daukagun bitartean aprobetxatzen saiatu behar dugu.

Denboraldiko boladarik txarrera fitxaketa berriekekin batera iritsi da. Zure ustez bi gauzen artean ba al da loturarik?

Fitxaketak ez dira txarrak izan. Ekarpen ona egiten ari direla uste dut. Egia da emaitzek agintzen dutela eta behar handia geneukan unean bolada oso txarra hartu dugula, baina partidak aztertuta ez dut uste taldeak gauzak batere gaizki egin dituenik. Gertu egon gara esateak ez du ezertarako balio, badakigu, baina ez nuke esango fitxaketak txarrerako izan direnik.

Giroa gaiztotuta egoteak kalte egingo al dizue?

Giroa aspalditik dago gaiztotuta. Jokalariekiko eta zuzendari-tzarekiko oposizioa areagotzea oso normala da, futbolak horrela funtzionatzen duelako. Real oso barrutik bizi du jendeak.

Mikel Aranburuk honakoa esan zuen: «Orain etsitzen badugu, ez dugu inongo aukerarik izango. Ez badugu etsitzen, izango dugu akaso txikren bat». Ados?

Bai. Batuta egotea, gauzak ahalik eta ondoen egitea... Gutxieneko betebeharra da, are gehiago egoera horren larria izanda. Mila kalkulatu egin ditzakezu, baina tartea ez da gainditezina oraindik. Askok diote: «Liga osoan bi partida irabazi badituzue, nola irabaziko dituzue orain hiru jarraian?». Bada, posible da, ezinezkoa dirudien arren, eta horrela beste-teei gerturatu eta beldurra sartuko genieke. Lehen Mailan jarraitu nahi dugu eta, horretarako, ez daukagu beste-rik.

Batez beste 36 partida jokatu dituzue azken bi denboraldietan. Zuretzat ere sasoi mardarikatua izaten ari da, ezta?

Bai. 26 urterekin ikastea bada, eta nire bilakaerarako ez da batere ona. Bigarren Mailara jaistearen kolpe handia izango litzateke profesionalki. Hala ere, hori baino askoz ere garrantzitsuagoa da Real. 40 urte daramatza Lehen Mailan eta espero dezagun hor jarraitzea.

LESIOA

«Belauneko artikulazioa mindurik neukan; Liverpoolerako fisioterapeutaren eskuetan ere jarri naiz»

TALDEAREN JOKOA

«Sortzen dizkiguten gol aukerak eta gure gol egiteko sormena orekatu behar ditugu gauzak konpontzeko»

ESPERANTZA

«Azken partidetan bezala jokatzen baldin badugu azkenean golak sartuko ditugula uste dut»

AHT ▶

Zizurkildik Hernanira egingo dute mendi martxa asteburuan

Bi egunetan egingo dute ibilaldia AHTk egingo lukeen ibilbidea aztertuz

ERREDAKZIOA

Asteburu honetarako AHTren aurkako mendi martxa antolatu dute, Zizurkildik abiatu eta Hernaniraino. Bi egunetan egingo dute ibilaldia eta AHTren ibilbidea nondik joango den erakutsiko dute. Etzi hasiko da martxa. 09:00etan tren geltokian bilduko dira eta bertatik hasiko dute mendi martxa Urkamendirantz. Handik Belkoainera joko dute eta eta ondoren Andoaingo Gaztetxean salda beroa izango da. Gauen Gaztetxean bertan lotarako lekua atonduko dute.

Igandean 09:00etan elkartuko dira Andoaingo Goiko Pla-

zan. Hernanin amaituko dute ibilbidea eta bertan sagardoa eta gazta dastatzeko aukera izango dute. Ondoren kalejira egingo dute herrian zehar.

Bi eguneko ibilaldian AHT nondik pasatuko zen aztertu ahal izango dute parte-hartzaileek. «Tunel, biaduktu, lubaki, hondakindegia... afekzio nagusiak» azpimarratuko dituzte eta beste zenbait proiektu berri ere azalduko dituzte antolatzaileek.

«Informazioa azaldu»

Hain zuzen, martxa antolatu dutenen asmoa «AHTren inguruan daukagun informazioa

ESKARIAK

«Informatuak izateko, gure iritzia agertzeko eta kontuan hartuak izateko eskubideak» aldarrikatzen dituzte

azaltzea izango da, instituzioetatik herritarroir ukatu digutena agertzea eta aldi berean AHTk dakarren handikeria, desoreka soziala, txikizioa eta diru zorra salatzea izango da».

Antolatzaileek gaineratzen dutenez, AHTren auzian «herritarro iritzia kontutan hartu gabe, isilpean eta agertu duten

informazio urri hori manipulatuz landu dute proiektua bai Madrilerekin eta bai Eusko Jaurlaritzarekin ere hemendik. Demokratikoak deitzen dioten edozein eszenatokitari behar beharrezkoak diren printzipioak eskatuko ditugu. Informatuak izateko, gure iritzia agertzeko eta kontuan hartuak izateko dugun eskubidea tinko aldarrikatuko dugun.

Gonbidapena luzatzen dute antolatzaileek mendi martxa parte hartzera. Bestalde, hilaren 17an Arrasaten AHT Gelditu! Elkarlanak deitu duen AHTren aurkako manifestazioan parte hartzeko deia ere luzatzen dute.

PILOTA ▶

Tolosaldeko Pilota Topaketak berriro martxan

IV. Tolosaldeko Pilota Topaketak martxan jartzeko asmoa dute antolatzaileek. Benjaminetatik hasi eta senior maila artekoek har dezakete parte. Seniorretan eskualdeko klubean batean fitxa dutenek ere parte har dezakete. Hilaren 24an hasiko dira partidak eta izena emateko epea hilaren 12an amaituko da. Horretarako zenbaki hauetara deitu behar da: 647 315599 (Jeremias); 943 01 65 25 (J.M. Ortiz) eta 943 65 14 03 (M. Izagirre).

'18/98 AUZIA' ▶

Bilboko manifestaziorako autobusa

18/98 + elkarlanak manifestazioa antolatu du Bilbon etzi 17:00etan, auzipetuei babesa eman eta epaiketara bertan behera geldi dadin eskatzeko. Aitzondo bailarako autobusa 15:00etan Asteasuko plazan eta 15:15ean Villabonako kiroldegian geldituko da. Izena emateko 6157087 32 eta 638 05 10 51 zenbakietan eta Iratzar tabernan.

ANOETA ▶

Aerobik eta batuka saioa, hilaren 13an

Kultur Astearren baitan herenegunerako programatuta zegoen aerobik eta batuka saioa bertan behera gelditu zen azken momentuko arazo batengatik. Hortaz, Anoetako Udalak barkamena eskatu nahi die kiroldegian agertu zirenei sortutako eragozpenengatik eta jakinarazi du saioa hilaren 13an, asteartea, izango dela, 18:15etik 19:30era kiroldegian.

ZIZURKIL ▶ AZPIEGITURAK

Bulandegi Bidean aurki jarriko dute semaforoa, zirkulazioa zuzentzeko

ERREDAKZIOA

Bulandegi Bideko zirkulazioa semaforo batek zuzenduko du hemendik gutxira, eta, era berean, handitu egingo da bertan ibiltzen diren oinezkoen segurtasuna, Zizurkilgo Udalak azaldu duenez. «Zirkulazio handia eta ibilgailuak tarte horretan abiadura handiz igarotzen direla ikusita, eta horrek oinezkoentzat arriskua suposatzen duela», Udala Gipuzkoako Foru Aldundiarekin jarri zen harremanetan, eta horren ondorioz burutuko da aipaturiko ekintza.

Lortutako akordioaren arabera Zizurkilgo Udalak Bulandegi Bideko espaloiak egin ditu. Hau da, zati berriak eraiki ditu eta dagozkion beheraguneak egin, besteak beste. Argiztapena ere hobetu egingo dute tarte horretan, oinezkoek behar beste argi izan dezaten ibilbidean zehar. Foru Aldundiak, bere aldetik, erdibitzaile bat eta babesgune batzuk eraikiko ditu, eta ibilgailuentzako seinale bertikal zein horizontala ipiniko. Argiztapenean ere hartuko du parte, eta ibilgailuen zirkulazioa zuzentzeko semaforoa ipiniko du.



Bulandegi Bideko espaloian lanak egiten ari zireneko irudia. I. GARCIA

Behin obra hauek amaituta, Udalaren eta Foru Aldundiaren artean banatuko dituzte mantentze lanak. Ekintza honen bidez, udal arduradunek inguru horretan dagoen arriskua ezabatuko nahi dute, oinezkoek abia-

dura handiz igarotzen diren ibilgailuen zirkulazioa jasan behar baitute. Aipaturiko lanekin, baina, ibilgailuek murriztu egingo dute abiadura eta oinezkoek beren ibilia errazteko elementuak izango dituzte.

HILBERRIAK - URTEURRENAK - ESKERTZAK

Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZAn jarri eta Gipuzkoako beste 4 Hitzetan DOAN agertuko da

HITZAK GIPUZKOAN 120.000 IRAKURLE

ESKELAK • 19:00ak arte hartzen dira
tolosaldean@tolosaldeko-hitza.info
Tel.: 943 65 56 95



KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA

AMEZKETA ▶ KULTURA

Pello Zabala eta Joxe Mari Otermin, besteak beste, martxoko kultur ekitaldietan

Hilabete osoan zehar izanen diren ekitaldi hauek gaur hasiko dira, 20:00etan, Oterminen Ergoneko erretiratuen lokalean eskainiko duen hitzaldi batekin



Amezketako alkatea, Joxe Mari Otermin, eta Pello Zabala. N. URBIZU

NAIARA GARZIA

Urtero bezala, martxoa iristea-ekin batera Amezketa hainbat kultur ekitaldi antolatatu dituzte gaurtik hasita hilabete osoan zehar.

Amezketarrak izango dira kultur ekitaldi hauen protagonistak, eta ez entzule edo ikusle moduan soilik, herriko bi seme izango baitira lehenengo bi hitzaldiak eskainiko dituztenak: Joxe Mari Otermin eta Pello Zabala. Joxe Mari Oterminen 2005. urtean argitaratu zuen liburuan, *Amezketan bide luze bezain malkarrak* delakoan, bat egin zuten bezala (Pello Za-

balak Oterminen liburua sarrera idatzi zuen) aurtengo martxoko kultur ekitaldietan ere biak han izango dira.

Gaur, Joxe Mari Oterminen *Bi amezketar Gurs-eko* (*Frantzia*) *konzentrazio eremuan* izeneko hitzaldia emango du, Ergoneko erretiratuen lokalean, 20:00etatik aurrera. «Joxe Mari Oterminen idatzi zuen liburuan gai honi buruz zerbait aipatzen du eta ea honen inguruan hitzaldi bat prestatuko zuen galdetu nion eta baiezkoa eman zidan», dio Joxe Mari Goikoe-txeak. Amezketako Udaleko kultur arduradunak.

Hurrengo hitzaldia Pello Za-

EGITARAU ▶

GAUR

20:00. Joxe Mari Oterminen hitzaldia, Ergoneko jubilatuen lokalean: *Bi amezketar Gurs-eko* *konzentrazio eremuan*.

MARTXOAK 15, OSTEGUNA

20:00. Pello Zabalaren hitzaldia, Ergoneko jubilatuen lokalean: *Aldaketa klimatikoa*. Ondoren, luntxa eskainiko dute.

MARTXOAK 16, OSTIRALA

18:00. Onintza Orbegozoren hitzaldia, balioaitzeko gelan: *Nerabezaroa*.

MARTXOAK 22, OSTEGUNA

20:00. Angel Cuerdoren *Mekong ibaia, bizitza tsunamiaren ondoren* hitzaldia balioaitzeko gelan.

MARTXOAK 30, OSTIRALA

15:00. Zumardi eskolan, Anjel Alkainen emanaldia. Umeen marrazkiak irakurtzeko izango dira eta liburutegian umeen olerkiak. Ondoren, merienda.

balarena izango da, martxoaren 15ean, Ergoneko erretiratuen lokalean, 20:00etan. Eguraldian aditua denez, Goikoe-

txeak azaldu duenez, «orain denon ahotan dabilen eguraldi aldaketaren inguruan hitzaldia emateko proposatu nion». Aldaketa klimatikoa izango da, beraz, hitzaldian Pello Zabalak jorratuko duen gaia.

Bai martxoaren 8an, bai 15ean, hitzaldiak amaitu ondoren luntxa eskainiko dute gerturatutako guztientzat. «Jendea ekarrazteko luntxa jartzea erabaki dut».

Martxoaren 16an, 18:00etan Onintza Orbegozoren hitzaldia, Nerabezaroaren inguruan mintzatuko da plazako gela polibalentean eta helduaroko bidean gazteek aurkitu ditzaketen zailtasunak landuko ditu.

Martxoaren 22an, berriz, Amezketatik oso urrun dagoen errealitate baten berri emanen du Angel Cuerto Galarragak, plazako gela polibalentean, 20:00etan, *Mekong ibaia, bizitza tsunamiaren ondoren* izeneko ikus-entzunezko emanaldian.

Haurrek ere izanen dute txorrik martxoan zehar egingo dituzten ekitaldi hauetan. Martxoaren 30ean Anjel Alkainen emanaldi bat ikusi ahaliko dute, 15:00etan, Zumardi eskolan. Era berean, udaletxean umeek egindako marrazkiak jarriko dituzte, eta liburutegian, idazlanak eta olerkiak.

EUSKARA ▶

Bai Euskarari Ziurtagiria Alegian eta Zizurkilan

ERRERAKZIOA

Gaur, 20:00etan, Kontseiluak Bai Euskarari Ziurtagiria aurkeztuko du Alegiko udaletxean.

Alegian gaur egingo duten aurkezpena, Zizurkilan hurrengun egindakoaren ondoren dator. Bertan Gizarte Erakundearen Kontseilua eta Aiztondoko euskalgintza izan ziren. Gaur egun Euskal Herriaren 1.400 erakunde baino gehiago dira Bai Euskarari Ziurtagiria eskuratu dutenak.

Martxoan zehar Zizurkilan teknikari bat Aiztondoko eragile ezberdinen artean ziurtagiria sustatzen ibiliko da, eta apirilaren 19an, Tolosaldeko Bai Euskarari Ziurtagiriaren banaketa ekitaldia egingo da Villabonan, Gurea antzokian.

TELEFONOAK ▶

Larrialdiak. ((112))

Osasuna.

▶ **Alegialdea.** Osasun z.: 653212

▶ **Anoeta-Alkiza-Hernialde.**

Medikua: 65 23 39

▶ **Asteasu.** Medikua: 692423

▶ **Baliarrain.** Medikua: 889003

▶ **Berastegi-Elduain.** Medikua: 683361

▶ **Bidegoian.** Medikua: 681134

▶ **Ibarralde.** Osasun etxea: 672411

▶ **Ikaztegieta.** Medikua: 653329

▶ **Irura.** Osasun zentroa: 690720

▶ **Leitza.** Osasun z.: 948 510800

▶ **Orendain.** Medikua: 655595

▶ **Orexa.** Medikua: 682228

▶ **Tolosa.**

▶ Anbulatorioa, larriald: 461111

▶ San Esteban: 006800

▶ Gernikako arbola: 006900

▶ Amaroako dispen.: 672637

▶ Asunzion Klinika 675799 -

67 53 90 (larrialdiak)

▶ DYA: 672536

▶ Gurutze Gorria: 674888

▶ Villabona. Anbulat.: 006970

▶ **Zizurkil.** Aiztondo zerb.: 693930

Garraioak.

▶ Renfe: 902 24 02 02

▶ Donostiako autobusa: 361740

▶ Tolosaldea bus: 650621

▶ Leitza autobus.: 948 221015

▶ Taxia: 670420

▶ Taxia (Leitza): 608 873016

Besterik.

▶ Ertzaintza: 538820

▶ Tolosa-Udaltzaingoa: 675858

▶ Tolargi: 650016

▶ Iurramendi egoitza: 670325

▶ Tolosa gasa: 675320

PILOTA ▶



Berria Txapelketatik kanpo

Nerea Urbizu ▶ Beotibarren Berria Txapelketako pilota partidak jokatu zituzten igandean. Hauetan Aurrera-Saiazekoak lehiatu ziren Irurtzun talde nafarraren kontra, baina ezin izan zuten irabazi eskualdekoek. 55 tanto egin zituzten, eta irabazleek 61. Kadeteen mailakoa eta seniorren mailakoa galdu egin zuten, gazteen mailan irabazi arren, txapelketatik kanpo gelditu dira. NEREA LIZARTZA

AGENDA ▶
DEIALDIAK

Tolosa. Gaur, 17:30ean, Errota Haur Liburutegian Idoia Sanchez ipuin kontalaria izango da 4-9 urte bitarteko haurrentzat.
Tolosa. Nikaraguako Malpaisillo herriko Xochilt Acalt emakume zentroaren aldeko merkatu txikia antolatu du Amarotzeko auzo elkarteak Kultur Ebean. 16:00etatik 20:00etara zabalik (larunbatean 10:00etatik 14:00etara ere bai).
Tolosa. Harizpe jubilatutako elkarteak Asturiasera irteera antolatu du apirilaren 16tik 21era. Informazioa eta izen-ematea, elkartearen (Pentsio osoa, 245 euro bazkideek, 250 ez bazkideek).
Ibarra. Xebasi omenaldia egingo diote, 19:45ean. Lehenik hilerrian lore eskaintza eta ondoren Arane Iturrira joango dira.
Amezketza. 20:00etan Ergoneko jubilatuen lokalean hitzaldia bideratuko du Jose Mari Otermin Urtizberekak. Gaia *Bi amezketar Gurs-eko (Frantzian) kontzentrazio eremuan* izango da. Ondoren, lunch-a izango da.

ZINEMA

Tolosa. Jasmila Zbanic zuzendariaren *Gribavica* filma eskainiko du gaur, Emakumearen Egunean, Tolosako Zine-forumak Leidor aretoan 19:15ean eta 21:45ean.
Leitza. 16:30ean *Princesas* filma Gaztetxean izango da.

GUARDIAKO FARMAZIAK

Gaur
Areso. Goizueta, F. Loidi ebea. 112.
Tolosa. Santa Maria, I. Nafarroa etorbide, 2. 943 654610.

IRRATIA

Txolarre irrati (107.5, 101.2 FM)
 11:00-14:00. *Tolosaldeko ahotsa* magazina: eguraldia Joxe Landarekin, TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO Hitzaren errepasoa, elkarrizketak, agenda, lehiaketa, disko eskainiak...
 18:00-20:00. *Tolosaldeko ahotsa* (errepikapena).
 20:00-21:00. *Irauli uhinak*.
 21:00-23:00. *Bide okerretik*.

▶ **HITZA** ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.

Erakusketa, Kultur Astearen baitan

ANOETA ▶ Anoetan aurrera doa Kultur Asteak. Hamaika ekitaldi antolatu dituzte adin guztientzako herritarrentzat. Horien artean dagoeneko eskualdeko beste hainbat herri zeharkatu dituen *Hondakinak: ametsgaiztorik ez!* erakusketa izango da 10:30etik 12:30era eta 15:00etatik 21:00etara, kiroldegian. Etzi, berriz, 09:00etatik 13:00etara. M. SOROA

AGURRAK ▶



URTE ASKOAN
 Eneko.

Ez dakizula zeinek jarri dun? Jeje! ondo pasa!



URTE ASKOAN
 Hodei Tejeria Goikoetxea (Gaztelu). Gaur urtebete. Ebekeon eta bereziki Eiderren partetik.



URTE ASKOAN
 Intza (Txarama). Zorionak! Gora marboak 8.



ONGI ETORRI
 Anartz Azpiroz Izagirre. Bedaiotar berria 2007ko otsailaren 28an jaioa.



berriaren eskutik

PURRITX eta PORROTIX

txandalak

Neurria	2	4	6	8
Adina	0-2	2-4	4-6	6-8
Haurraren luzera cmetan	80-90	98-104	110-116	122-128

36€

Egin eskaria amaitu baino lehen
943 304 345
 edo harpidedunek
www.berria.info

Aukera ezazu, BIZI euskaraz **berria**

OHARRA: biltegiokoak bukatu arteko eskaintza